

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

-Zein dira gure bezeroak?

Itxura-alaketak jasan dituen eta bere irudia, erosotasuna eta autoestimua berreskuratu nahi dituen pertsona da; tratamendu espezializatu eta enpatiko bat behar duena. Gure bezeroak, batez ere, istripu edo traumatismo baten ondoren beren itxuran alaketak izan dituzten pertsonak dira.

- Bezeroen ezaugarriak

Zauri, ebaki, erredura edo ebakuntza baten ondorioz sortutako zikatrizak, kolore-alaketak edo azaleko irregularitateak dituzte. Era berean, itxura-alaketa horiek beren autoestimuari edo ongizate pertsonalari eragin dioten pertsonak ere gure bezero izan ohi dira; bereziki, berriro natural eta seguru sentitu nahi dutenak, eta tratamendua nabaritu gabe beren irudia berreskuratu nahi dutenak. Horiez gain, ebakuntza estetiko edo mediko baten ondoren emaitzak fintzea edo markak hobetzea behar duten pertsonak ere guregan aurkitzen dute laguntza espezializatua.